

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2214

253/2018 EBAZPENA, martxoaren 1ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Kirurgia Orokor Eta Digestio-Aparatuko Mediku kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 111/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Kirurgia Orokor Eta Digestio-Aparatuko Mediku kategoriako oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gorako errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 1a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

I. ERANSKINA

FAK. ESP. KIRURGIA OROKOR ETA DIGESTIO-APARATUKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: Maria Teresa Bacigalupe Artacho.
- Ordezkoa: Juan Antonio Guajardo Remacha.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: Candido Martinez Blazquez.
- Ordezkoa: Eugenia Campo Cimarras.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Alberto Loizate Totoricaguena.
- Ordezkoa: Arantxa Arruabarrena Oyarbide.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Alberto Colina Alonso.
- Ordezkoa: Saioa Arias Martin.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maria Isabel Bollo Arocena.
- Ordezkoa: Martin Galdiz Iturri

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maria Begoña Estraviz Mateos.
- Ordezkoa: Francisco Javier Ibáñez Aguirre.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Fernando Garnateo Nicolás.
- Ordezkoa: Idoia Irureta Urretavizcaya.

Idazkaria:

- Titularra: Belén Greaves Badillo.
- Ordezkoa: Ana Maria Zamarripa Elua.